



*txanela*

# Irakaslearen gidaliburua (zirriborroa)

# 6

**Buruargia? Bizkorra? Zein  
jakintsua den natura!**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 6. maila)

### TXANELA 3: SEIGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

## “BURUARGIA? BIZKORRA? ZEIN JAKINTSUA DEN NATURA!”

**Proiektua:** Inguruko toki batean dauden izaki bizidunen azterketa egin (bizilekua, bizimodua, ezaugarriak...) eta haiei buruzko fitxak edo azalpen testutxoak eraikiaz, gelako bilduma osatzea.

#### ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak eta bake hezkuntza.	Bizi ohiturak, harremanak. Solidaritatea
Ingurugiro hezkuntza	Unitate guztian zehar.

Hizkuntza eta literatura	Olerkiak: <i>Joxean Ormazabal</i> “Udaberria”, <i>J.K.Igerabide eta Anjel Lertxundi</i> . Igarkizunak: <i>J.M. Olaizola</i> “Txiliku”. Abestia: “ <i>Euskalduna euskaraz</i> ”, <i>Kaxiano</i> . Gaiaren ipuina: “Ipuin bat nola idatzi” <i>Mixel Murua</i> . Ipuin literarioa: “Hiru lagunak” <i>Txiliku</i> .
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia: “Eskerrak behiari”. <i>Joxean Ormazabal eta Imanol Urbieta</i> . Tradiziozko abestia: “Baserriko ate zabalak” <i>Txomin Artola</i> . Bertsoak: <i>Mikel Mendizabal</i> .

#### **Bibliografia euskaraz:**

*Gazteentzako entziklopedia Ilustratua*: “Animaliak” eta “Natura”.

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartean garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurumenaa-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartea eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.










Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 3

IKASLEAREN LIBURUA - 6. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0	 IRAKASLEA	Baliabideen taula	3	197
12		<i>Euskalduna euskaraz</i>	15	209
19		Entzunaldia: <i>Tris-tras polka</i>	17	211
27		Basoa eta itsasertza	23	217
35		Baseria	29	223
36		<i>Eskerrak behiari</i>	30	224
38		<i>Baseriko ate zabalak</i>	31	225
40		Erlauntza	32	226
44		<i>Elkarren osagarri</i> (bertsoak) <i>Nongoa hangoa</i> (bertsoa)	37	231

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatzeke asmoz, liburuaren azalaren behaketa eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntz funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

Hasteko, izenburuari erreparatuko diogu.

- *Zer adierazi nahi digu izenburuak?* Izenburu honetan “pertsonifikazio” deritzogun figura erretorikoa dugu. Hau da, pertsonaren ezaugarri jakin batzuk egozten zaizkio pertsona ez den objektu edo izakiari. Naturari buruz, jakintsua, buruargia, bizkorra dela esaten dugu. Hausnartu horren inguruan eta jarri adibide batzuk: ibai alai, kale tristea...

Ondoren, irudiei erreparatuko diegu erlazioak sortuz eta unitatean zehar landuko dugunaren inguruko iragarpenak egiten saiatuko gara.

- *Zer ikus dezakegu irudi hauetan?*
- *Zirkulu handian dauden irudiek zer adierazten dute?*
- *Eta zirkulu txikian daudenek?*
- *Zirkulu bakoitzean dauden irudiek ba al dute euren arteko erlazioerik?*
- *Eta bi zirkuluen artean ba al dago erlazioerik?*
- *Irudiak eta izenburua kontuan hartuz, unitate honetan zeren inguruan ibiliko garela iruditzen zaizu?*

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

## 2. Komikia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.*

Komikia irakurtzen hasi aurretik izenburuari erreparatuko diogu. Ondoren, ikasleek bakarka irakurriko dute komikia. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun, beraz eman iezaiezue behar beste denbora honi sakonki beha diezaioten.

Lehen binetako kartelean, beste pertsonifikazio baten aurrean aurkituko gara. Beharazi haurrei eta ea konturatzen diren berriro ere pertsoneri dagozkien ezaugarriak egozten ari gatzaizkiola naturari.

Komiki baliabideen behaketa bideratuko dugu lehenik.

- *Nola adierazten du marraskilariak lehen binetan Kleo abesten ari dela?*
- *Abestia ezagutzen al duzue? Abestuko al dugu?*

- *Nola adierazten da bigarren binetan Morgan pentsatzen ari dela? Eta zaplaztekoa hirugarrenean?*
- *Seigarren binetan Martinen globoa berezi samarra da. Baita zortzigarren binetan Kleorena ere. Zer adierazi nahi ote dute?*

Solasaldiaren ostean, komikiko pertsonaien banaketa adostu eta talde txikitan ozeneko irakurketari ekingo diote ikasleek, hizkuntzaren baliabideak lantzeko asmoz. Gogorarazi ikasleei, arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...), ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain doinuaren garrantzia azpimarratuz.

Komikian agertzen diren hainbat elementurekin zerikusia duten olerki, aho-korapilo, esaera eta igarkizun jarri ditugu ondoren, aukerako jarduera bezala, taldean irakurtzeko eta lantzeko egoki ikusten duzuen unean, horra hor:

Olerkiak:

“EGUZKIA ETA EURIA ERROMAKO ZUBIA”

Erromako zubia  
kolorezko zurubia.  
Kolorin, kolore,  
Erromako errege.  
Kolorin, kolorina,  
neu naiz Erromako erregina.

TiEtiRROtiMAtiKO tizutibitia  
Tikotilotireztiko tizutirutibitia.  
Tikotilotirin tikotilotire,  
Tierirrotimatiko tietirretige.

Belarriak luze  
ilea leun,  
untxi txuri polit bat  
daukat nik lagun.  
Baserrian saltoka  
dabil gau ta egun  
azenarioak janez  
igande ta astegun.

Esaerak:

*Lorarik edarrenak be, ximeldu.*  
*Lorea, zu zara neurea.*  
*Txori guzien ahotik ez da kantua bardin.*  
*Txoriak kantatu, kabia salatu.*  
*Poliki poliki txoriak, egiten du kabia.*  
*Eun txori egaxean baino, bat eskuan oba.*

Igarkizunak:

Lau hanka ditu, baina begirik ez;  
lurrezko jauregia du, baina teilaturik ez.  
(satorra)

Txaleko gorria, tripa hezurrezkoa  
eta hanka zurezkoa.  
Zer da? (gerezia)

Amona zahar zimurtu bat,  
ipurdian txotx batekin.  
Zer da? (mahaspasa)

*Txiliku*

### **3. Komiki txiki bat egin**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Komikiaren behaketan aztertutako baliabideak (abestiaren adierazlea, pentsamenduarena, zaplaztekoa edota kolpea, orroa eta haserrea) erabiliz, haur bakoitzak folio batean komiki txiki bat marraztu eta hitzez osatuko du.

### **4. Olerkiak: Udaberria**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 80. or.*

Bakarka orrialde honetan dauden bi olerkiak irakurriko dituzte. Ondoren, udaberriaren inguruan olerkiek diotena laburbilduko dugu denon artean, eta udaberriari buruz hurrek dakizkitenak adieraziko dituzte.

Lehen olerkia hartzen badugu eredu, hitz bera erabiliz, edota beste hitz batzuk (txoria, eguzkia, izadia...) haur bakoitzak olerkitxo bat edo bi osa ditzake eta txostenerako gorde ditzakegu. Beste aukera, olerkien bildumatxoa egitea (marrazkiaz hornitu) duzue.

Udaberria aitzakia, beste urtaroen aipamena eta euren ezaugarri nagusien aipamena egiteko probetxatu dugu une hau.

### **5. Aurre-ezagutzak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.*

Bakarka, orrialdearen lehen agindua irakurri eta jarduerari ekingo diote. Ondoren, taldean egiteko proposatzen den elkarrizketa burutu eta ekosistema hitzaren esanahiari buruz bakoitzak pentsatzen duena idatziko du. Erantzun hau unitate bukaeran berriz ere gogora ekarriko dugu eta bukaerako unean dakitenarekin alderatuko dugu. Azkenik, irakaslearen laguntzaz eta arbela erabiliaz, orrialde honetako azken talde jarduera burutuko dugu.

## **6. Proiektua**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.*

Unitate honetako proiektua zein den adierazten digun orria irakurriko dugu talde handian. Lan sekuentziaren hasieran, hainbat ekosistema eta bertako elementuak eta euren arteko erlazioak aztertuko ditugu. Horretan ari garela txostena osatzeko hainbat azterketa eta aplikazio jardura burutuko ditugunez, komenigarria litzateke, proiektua burutzen orrialdera joatea eta bertan agertzen dena irakurtzea unitatea lantzen hasi aurretik.

Proiektua gauzatzeko ekosistemaren bat aukeratu beharko duzue eta haren bertatik bertarako behaketa egiteko irteerak antolatu. Beraz, aurreikusi zein izan daitekeen aztertuko duzuen ekosistema hori eta noiz eta nola egin irteera horiek, baita zenbat aldiz joango zareten bertara ere, eta gero zuen proiekturako erabiliko dituzuen zein lan egin dezakezen irteera bakoitzean.

## **7. Ikasnorabidea**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.*

Gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, ingurumena arloa ageri den lehenengo zutabea irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, eman iezaiozue ikasleei tarte bat, binaka, irakur eta komenta dezaten beste arloetan ere zer den ikasiko dutena unitate honetan.

Gogora ezazue, ikasnorabidea ikasleen ikasketa prozesuaren autoerregulaziorako tresna dela eta unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, jardura bakoitzean hainbat arlotan lantzen diren edukien berri izatearekin batera ikasleek euren ikaskuntza-porzesuaren kontzientzia izan dezaten.

## **8. Munduan ekosistema anitz**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.*

Gure planetan ditugun hainbat ekosistema esanguratsu aurkezten dira orrialde hauetan. Bertan adierazi direnez gain, beste asko ere badira, eta posible da, hurrek baten bat ezagutzea (adibidez, Saharako basamortua), beraz, galde iezaiezue horren inguruan. *Zergatik ote daude gure planetan hainbat ekosistema?* Hausnartu galdera honen inguruan.

11. orrialdean dagoen klipean, ekosistemen inguruko ideia garrantzitsu bat adierazten da. Irakur ezazue taldean eta saia zaitzete ideia horiek garbi uler ditzaten. Horretarako irudietan dituzuen ekosistemen adibideak jarri eta hurrei jarrarazi. Ondoren, hurrei beren hitzekin, ez buruz, ideia hori adierazteko eskatu. Bukatzeko, irudiotan ditugun bi ekosistema aukeratu eta hauen arteko ahozko konparazioa bideratuko dugu, berdintasunak eta ezberdintasunak aipatuaz.



Irakasleoi, jarduera hau egin aurretik, lan-koadernoko 40. orrialdea irakurtzea gomendatzen dizuegu, bertan adierazten baitira, konparazioak egiteko aukerako urrats batzuk.

Unitate honetan bi elementuren arteko konparazioak egingo ditugu eta laugarren mailan hiru eta lau elementuren artekoak. Eman iezaiozue garrantzia konparazioak egiteko prozesuari, landu itzazue taldean, argibide ugari emanaz, beti ere ahaztu gabe hastapenetan gaudela eta datorren urtean sakonduko dutela eduki hori.

## **9. Euskal Herriko ekosistemak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or.*

Gure herria, gure planeta bezala, anitza da. Anitza da edozein ikuspuntutatik behatuta, baina hel diezaiozun gaiari eta azter dezagun gure paisaien aniztasuna eta ondorioz bertan sortu diren ekosistemen aniztasuna. Horretarako baliagarria izango zaigu haurren bizipenak eta ezagutzak mahairatzea. Gurasoekin eta ikastolarekin egindako irteeretan, udalekuetan egin izan dituztenetan, liburuetan edota dokumentaletan ikusitakoak gogora ekarri eta aniztasun hori nabarmentzen saiatu.

Bestetik, oso egokia litzateke ekosistema bat edo beste zuzenean behatzeko irteeraren bat egitea. Normalean, beren inguruko ekosistemak ezagunagoak zaizkienez, Euskal Herrian bertan, kilometro batzuk egin ondoren ezagutu ditzaketen paisaia eta ekosistemak bisitatzea oso interesgarria da, kostaldea, padurak, dunak, basoa, basamortua (Bardeak), erreka inguruak...

## **10. Igarkizunak: Bizidunak eta bizigabeak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 81. eta 82. or.*

Hurrek banaka irakurriko dituzte igarkizunak eta asmatzen saiatuko dira. Ondoren, talde handian elkar jartzeari ekingo diogu. 81. orrialdeko erantzunak honokoak dira: zuhaitza-eguzkia-behia-perretxikoa-harria-marigorringoa. 82. orrialdeko erantzunak, aldiz: inurria-gaztaina-ipurtargia-ura-tipula-masusta-dordoka edo barraskiloa-oiloa.

Gaitzat, bizidunak eta bizigabeak harturik, ahoz igarkizun txikiak asmatzen saia daitezela haurrak. Binaka jarrita, utzi denbora tarte bat pentsatzeko eta zirriborroa idazteko, eta txandaka esan ditzatela euren igarkizunak.

## **11. Bizidunak eta bizigabeak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. eta 15. or.*

Bi orrialde hauetan bizidunen ezaugarriak (jaio-elikatu-ugaldu-hil) azpimarratu dira, ondoren, biziduna eta bizigabearen arteko bereizketa egiteko eta bakoitzaren definizio txiki bat osatzeko.

Bestetik, -dun eta -gabe atzizkiaren inguruko hausnarketa ere bideratzen da ondoren, lan-koadernoan gehiago lantzeko. Behatu “atzizki” hitza bera ere, nola dagoen osatuta eta zein den bere esanahia. Aurrizki hitza ere aipatu, behatu eta bere esanahia argitu. Jar itzazue adibideak denon artean.

Argitxoren galdera ere erantzungo dugu guztion artean, euskaldun hitzaren esanahia argituz. Euskaldun izateak suposatzen duena, euskaraz bizitzea. Galdetu taldean egunero, eguneroko tokietan eta jendearekin euskaraz hitz egiten ote duten. Ikastola utzi eta gero ikastolako lagunekin nola hitz egiten duten... Ea konpromisoren batera iristen diren.

## 12. Abestia: Euskalduna euskaraz

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa, 29.pista/Irakurgaiak 3, 83. or.*

Euskararen erabilera sustatzen duen Kaxionaren abestia entzun eta irakurriko dugu. Atalez atal mezua aztertutuko dugu eta honekiko gure iritzia talde handian adieraziko dugu.

Bestetik, abesti honetan oinarrituz, letra berriak asmatzera jolas dezakegu, adibidez:

A,a,a, asmatzeko txanda da  
har ezazu patxada, beharrezkoa baita  
a,a,a, asmatzeko txanda da.

E,e,e, zure zain hemen gaude... hori ez da debalde/galde/alde...

I,i,i, kanta ezazu ederki/poliki/ biziki...

O,o,o, ez zaitez geratu lo,...

U,u,u, kanta ez da bukatu  
nahi baduzu jarraitu, hasierari heldu  
u,u,u, kanta ez da bukatu. (A,a,a, tik hasi berriro)

## 13. Atzizkiak: -dun eta -gabe

*Lan egiteko era: Bakarka/ Talde handian*

*Materiala: 6. lan-koadernoa, 35. or.*

Taldean, -dun eta -gabe atzizkiaren inguruko hausnarketa egina izanik, atzizki hauen erabilera trebatzeko, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduerak osatu beharko dituzte, hitzen esanahia idatziz eta hauetariko batzuekin esaldiak osatuaz.

Gero, sor ezazue elkarrizketa txapeldun eta zaldun hitzen esanahi orokortuaren inguruan mintzatzeko, eta baita, bi atzizki hauek dituzten hitz gehiago gogora ekartzeko eta hauekin ahoz esaldiak osatzeko ere. Nahi izanez gero, -gabe duten hitzen kasuan, bizkaierazko atzizkia ere jar diezaiokezue, ikasleei galdetuaz: Nola esango luke esaldi hori bizkaitar batek?

## 14. Txisteak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 84. or.*

Bakarka txisteak irakurri ondoren, txandaka eta irakurketa espresiboa eginez, txisteak ahots ozenez irakurriko dituzte. Gero, beti bezala txisteak kontatzeko tartetxoa hartuko dugu.

## **15. Animalien sailkapena**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 85., 86. eta 87. or.*

85. orrialdean, goian dagoen izakien sailkapenenetik hasiko gara. Eskematxo hau garbi izan behar dute eta ondo ikasteko eskatuko diegu. Ez da lehen aldia bizidun eta bizigabeen sailkapenarekin topo egiten dutena (1. eta 2. mailan ere landu izan dugu) beraz ikasteko ordua iritsi zaie. Bizidunen sailkapena (animaliak eta landareak) ere aurreko urteetan ikusia dute beraz erraza izango zaie.

Bereiz itzazue eskema eta kontzeptu-mapa. Zer du kontzeptu-mapak eskemak ez duena? Hala ere, eskemak adierazten duena esaldi modura jar daiteke, eta zailtasunik gabe gaia ezagutzen badugu. Egin ezazue taldean saiakera, adieraz dezatela esaldi moduan eskemak adierazten diguna.

Behean landareen sailkapen simple-simple bat dugu, aurrerago ikasiko dituzte beste hainbat irizpideren arabera egindako sailkapenak. Honek ere aurreko urtean landutakoarekin zerikusia du. Nahi baduzue, ikasteko eskatu.

86. eta 87. orrialdeetan, animalien sailkapena dugu. Eskema honek, aurreko biek baino konplexutasun maila altuagoa duenez, talde handian arbela erabiliz, azalpenak emanaz eta kontzeptuak argituz, landuko dugu lehenik. Eskema hau datozen egunetan ere berriro azter daiteke, poliki-poliki barnera dezaten.

Ondoren deskribatzen den jarduera, animalien sailkapena ikasteko lagungarria izango zaie.

## **16. Animalien jolasa**

*Lan egiteko era: Talde txikian*

*Materiala: Material osagarria*

Material osagarrian dituzuen animalien fitxak, nahi adina aldiz fotokopiatu haur bakoitzak behin baino gehiagotan erabiliko baititu. Jolasa, NOR DA NOR? Motakoa da da. Hau da, jokalaria bakoitzak animalia bat hautatuko du haren gainean marka bat eginez, baina beste jokalaria jakin gabe. Txandatur, lagunak zein animalia hautatu duen jakin asmoz, jokalaria batek besteari sailkapeneko ezaugarri batzuk betetzen ote dituen galdetuko dio lagunari. Adibidez: Ornoduna al da? Eta lagunak baiezkoa edo ezezkoa erantzun dio. Erantzunaren arabera ezaugarria betetzen ez duten beste animaliak baztertuko ditu eta gelditzen zaizkionen inguruko galderak luzatuko ditu hurrengo txandetan asmatu arte. Lagunak zein animalia hautatu duen aurrena asmatzen duenak irabaziko du.

Orriak aprobetxatzeko, orri berean apunta ditzakete lagunaren egoera eta baita (beste kolore batez edo) berak hautatutako animalia ere.

Jolas hau nahi adina aldiz erabil dezakezue. Haurren gustuko izateaz gain, sailkapena ikasteko tresna egokia baita.

## **17. Animalien marrazkiak eredu behatuz**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Material osagarriko irudi batzuk aprobetxatuz (egokienak handitu fotokopia bidez) eta txoko zuriko liburuetan izan ditzakegun irudiak ere erabiliz, ereduaren behaketan oinarritutako marrazketa bultza dezakegu. Lan hau arkatzez egin dezatela eta bukaeran hala nahi badute, koloretako arkatzez margotu.

## **GURE INGURUKO EKOSISTEMAK**

### **18. Basoa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17. or.*

Euskal Herriko ekosistema ezaguna dugu basoa (haurrek ezagutzen ez badute, irteera bat ez legoke soberan) eta bertako bizidunen behaketa egingo dugu oraingoan. Zerrendatuta azaltzen dira bi orrialde hauetan bertako bizidunak. Irakurri eta irudiekin erlazionatu. Izen arruntenen zerrenda (10 bat elementu, hau da 5 bat landare, eta 5 bat animalia) ikas dezakete, basoko bizidunei buruz galdetzerakoan adibideak jarri ahal izateko.

Elkarrizketa izan baita animalia eta landare hauen egokitzapenei buruz. Adibide garbia katagorria dugu. Bere gorputza zuhaitzetan adaskatik adaskara ibiltzeko prestatua dago eta bere hortzak intxaurrak, urrak eta era honetako fruituak jateko egokituta. Okilak berriz, moko gogorra du zuhaitzetan zuloak egin ahal izateko. Zulo horietan jarriko du bere habia. Hortzak, gaueko harraparia, ilunpean ikusteko egokituta ditu begiak, gertuko animaliatxoak (sagua...) ikusi ahal izateko. Bere bi begiak aurreratza ikusten dute, ez dute urrutira eta eremu zabaletan ehizatzen duen arranoaren ikusmira zabalik.

17. orrialdean kontzeptu garrantzitsu bat azaltzen zaigu: ELIKA-KATEA, ekosistema guztietan ematen den janariaren bidezko harremana, era ziklikoan gauzatzen dena. Adierazi hurrei ekosistema guztietan ematen direla kate hauek.

Ereduan, deskonposatzaileek landareen hazkuntzan (elikaduran) duten eragina adierazten da. Ondoren, landareek animalia txikien elikadurarako duten garrantzia ikusten da eta ondoren, animalia handiagoek elikatzeko txikiagoen beharra dutela ikus daiteke. Animalien hondakinak (gorotzak, gorpu hilak...) deskonposatzaileek (mikroorganismo...) desegiten dituzte ongariak sortuz eta hauei esker landareak elikatuz, zikloa berriro ere hasiko da.

Eredua kontuan hartuz, landareena eta deskonposatzaileena gehiegi ez dela aldatuko jakinik, irudiei ondo behatu eta saia zaitezte hainbat elika-kate osatzen (erbia-arranoa, zizarea-basoilarra, intsektuak-txoriak, fruitu txikiak-txoriak, hontza-saguak, hontza-txori txikiak...).

## 19. Entzunaldia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: CDa, 34. pista*

### Gure konpositoreen txokoa

Hasteko elkarrizketa sortuko dugu izenburua eta egileari buruz hitz egiteko. Izenburuari erreparatuz iragartzen hasiko gara, “Tris-tras polka”.

- *Ba al dakizue zer den polka bat? Begira ezazue hiztegian.* Polka: Jatorri bohemiarreko dantza, 2/4 konpasekoa eta XIX. mendearen lehen erdian Europa osoan hedatu zena; dantza honen doinua.

- *Eta, Tris-tras hitzek zer uste duzue adierazi nahi dutela? Izenburua irakurrita nolako musika mota imajinatzen duzue? ...?*

Ondoren, egileari buruz mintzatuko gara.

-*Bere egilea Strauss da, ezagutzen al duzue? Nongoa da? Mapa ekar dezakezue gelara eta Austria bilatuz Viena bertan kokatu. Ezagutzen al duzue bere beste obraren bat? Bila ezazue egileari buruzko informazioa, argazkia eta biografiaz gain, obrari buruzkoa ere, eta ondoren, jar ezazue “Gure konpositoreen txokoan”.*

**Strauss, Johann II.a.** Konpositore austriarra (Viena, 1825-99). Johann Strauss (1804-49) gorteko bals-zuzendariaren semea. Aitak sorturiko orkestra zuzendu zuen eta gorteko dantza-musika ere bai. Operetak (Saguzarra, 1874) eta 150 balsetik gora (Danubio urdina, 1867) konposatu zituen. Vienako musika arin eta dibertigarrian maisutzat jotzen da.

### Musikograma

Musikograma, konposizio baten garapenaren berreraketa bisuala da, ikur, irudi eta koloreetan oinarritutako kode sinple baten eskema, alegia. Musikogramek, obra baten forma ulertzen eta esaldiak eta motiboak ezagutzen laguntzen dute.

Lehenengo eta behin, musikograma muntatzea eta motibo bakoitzari bere kolorea ematea komeni da. Berdinak diren irudiak kolore berberarekin adieraziz.

A letra duten koadroei hondoa horiz marraztuko diegu, B letra duten koadroei urdinez eta C letra duten koadroari berdez. Musikograma prest dugunean, plastifikatu egingo dugu. Oharra: marraztu aurretik, fotokopia handiak atera ditzakezue eta marraztu ondoren plastifikatu.

Musikograma hau, Kataluniako Juan Hernandez Freixenos-ena da.

Hasteko, ikasleei ipuintxo bat kontatuko diegula esango diegu. Animaliatxo baten ipuina, sagu batena alegia. Eta ipuina kontatzen hasiko gatzaizkie.

*“Bazen behin sagutxo bat... zein izen jarriko diogu sagutxoari? XXX, ongi, etxe handi bateko sotoan bizi zena. Bertan zeukan bere etxetxo, eta bertan bizi zen lasailasai. Gose zenean, janari bila joaten zen sukaldera eta normalean ez zuen arazorik izaten janaria lortzeko. Behin ordea, ezetz jakin zer gertatu zitzaion... bada... kontatuko dizuet, baina irudi bidez eta musikaren laguntzaz. Egon adi eta jakingo duzue zer gertatu zitzaion.”*

Modu honetan, girotu egingo ditugu eta gero, musikarekin batera, irakasleak musikogramaren urratsak adieraziko dizkie.

Bukatzean, ipuinaren inguruan hitz egiteko elkarrizketa sortuko dugu.

*-Zer da gertatu dena? Nola bukatu da ipuina?...?*

Batez ere, garrantzia emango diegu motibo ezberdinei, hauek identifikatu eta dramatizatu ere egin ditzakegu, adibidez, erratzaren golpeak txalo bat eginaz edota saguaren burla imitatuz...

Honen ostean, musikograma bat zer den galdetuko diegun ikasleei eta elkarrizketa sortuko dugu horri buruz hitz egiteko.

Gero, nahi izanez gero, irudi eta musika bidezko ipuina idazteari ekin diezaikegu. Ipuina ezaguna denez, sormena eta planifikazioa aldetik lanik ez dugu izango, beraz testualizazioa lantzeari ekin diezaikegu, eta baita idatzitakoa berrikusi eta zuzentzeari ere.

## **20. Erreportajea: Otsoa, babestu edo akabatu?**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 88. or.*

Hurrengo jarduera girotzeko, erreportaje txiki bat duzue irakurgaietan. Erreportajea berria baino harantzago doa. Berria gaurkotasuna duen gertakizun baten kontaketa laburra da; zer, non, noiz, nor, zergatik bezalako datuak eskaintzen ditu. Erreportajea gai baten inguruko informazio zabala eskaintzen duen kazetaritza-generoa da. Askotan berri edo albiste bat abiapuntutzat hartuz, informazioa zabaldu egiten du, berriaren osagaiei (guztiei ala batzuei), beste era bateko informazioak (taulak, grafikoak...), iritziak, elkarrizketak... txertatuz.

Esku artean duzuen, beraz, berria baino, erreportaje txiki bat da. Gertakizun baten berri laburra emanaz hasten da: ZER, *ekologisten eta artzainen eztabaida sortu da (otsoa babestu edo akabatu?)*; NOR, *ekologistak eta artzainak*; NON, *Araba aldean*; NOIZ, *azken egunotan*; ZERGATIK, *artalde askotatik desagertutako ardiak akabatuta aurkitu dituztela eta*. Modu horretara gaia aurkezturik geratzen da (otsoa babestu edo akabatzearen aldeko eztabaida), eta ondorengo paragrafoetan arazoa eta bere zergatia, eta bi aldeen jarrera eta arrazoiak azaltzen dira.

Ondoren proposatzen den lanketarako ez da beharrezkoa berria eta erreportaiaren arteko bereizketak egiten hastea. Nahikoa izan daiteke, testuaren azaleko elementuak (titulua, argazkia, argazki-oina eta azpтитulua) interpretatuz, lehendabizi, eta testu osoa irakurritik, ondoren, ikasleek honako galdera hauei erantzutea:

- *Zein da testu honen gaia?*
- *Zergatik da gaur egun arazoa otsoa ugaritu izana?*
- *Zer jarrera dute artzainek? Nola justifikatzen dute?*
- *Zer diote ekologistek? Zein arrazoi ematen dute?*

Nolanahi ere, gai hau dela eta informazioa eta iritziak jasotzeko denbora eta bideak (familia, lagunak, anai-arreba zaharragoak, prentsa...) proposatu hurrei, era honetan ondorengo jarduera aberastuko baitugu.

## **21. Mahai-ingurua**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: 6. lan-koadernoa, 36., 37. eta 38. or.*

Orain arte egindako hitz-errotak hainbat badira ere, ikasleek mahai-ingurua, modu formalean egingo duten lehen aldia da, beraz, har ezazue jarduera hau saiakeratzat, lehen hezkuntzan hasi eta bigarren hezkuntzan oraindik ere landuko duten ekintza baten hastapeneko urrats bezala.

Jarduerarekin hasteko, talde handian elkarrizketa sortuko dugu, mahai-ingurua zer den argitzeko. Jarraian, irakurritako erreportaiaren inguruko iritzia eskatuko diegu ikasleei. Taldeak egiteko orduan emandako iritzia kontuan izan, euren jatorrizko iritziaren kontrako posizioan jarriz gero, enpatia landuko baitugu. Hitz-errotan ikasleek beren iritzia adierazteko aukera zuten, orain berriz, posizionatuta egongo dira egokitu zaien taldean eta honen defentsan aritu beharko dute, nahiz eta jatorrizko iritzia bestelakoa izan. Hala ere, landu nahi duzuenaren araberrako taldeak egin ditzakezue. Gero, eztabaida egiteko jarraitu beharreko prozedura adierazten duten urratsak irakurriko ditugu banan-banan ondo argituz. Jarraitzeko, antolatzaileei buruzko klipa irakurriko dugu. Antolatzaile hauen funtzioa eta erabilpena argitzea da jardueraren helburua, hauekin trebatzeko esaldiak egitea eta kartoi mehean kopiatzea gelan begi bistan jartzeko ikasleek behar dituztenean erabilgarri izan ditzaten. Ikasleek ez dituzte zertan buruz ikasi behar aipatutako antolatzaileak, erabiltzen ikasi bai, ordea, eta horretan trebatuko gara. Honen ostean, lan-koadernoko 38. orrialdean proposatzen zaien mahai-ingurua planifikatzeko jarduera osatzeko, talde txikiak egingo ditugu, bukatzean debateari ekiteko. Moderatzaileak (gure kasuan irakasleak) momentu jakin batean, beste galdera batzuk egin ditzake, debateari bide berriak irekiz.

Aukera izanez gero, polita litzateke debatea bideoz grabatzea. Bideoak ikasleek euren burua distantziaz ikusi eta autoebalarazioa egiteko balioko digu. Debatea bera ere kritikatu eta baloratzeko aukera ere eman diezazueke. Hona hemen behatu ditzakezuen hainbat alderdi:

- *Jarrera aldetik, interesa jartzen duen besteen argudioak entzuteko orduan.*
- *Txandak errespetatzen dituen hitza eskatuaz eta egokitzen zaionean hitz eginaz.*
- *Debatean parte hartzen duen.*
- *Hitz egiterakoan, esandakoa gaiari lotzen zaion edo ez.*
- *Hitz egiteko orduan, argitasunez hitz egiten duen.*
- *Nolako jarria duen.*
- *Erregistro egokia erabiltzen duen.*
- ...

## **22. Landareen elikadura**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or*

Talde handian landareen elikadurari buruzko aurre-ezagutzak martxan jarri ondoren, banaka landareen zatien izenak jarri eta erlazionatu ondoren, zati bakoitzak betetzen duen funtzioa ikasiko dugu. Aurrerago, fotosintesiaren kontzeptua eta bertan ematen diren prozesuak ikasiko badituzte ere, ez legoke sobera aipatzea hostoak, landareen “laborategitxoak” direla.

Elikadura-prozesu hau ulertu ondoren, bikoteka jarri eta batak besteari landareak nola elikatzen diren azalduko dio.

Lan honetan argi adierazi behar dugu entzuten duena ulergarria suertatu behar zaiola hartzaileari, eta horrela ez bada, galderak eginez eta iradokizunak eginez, igorleren mezua bideratzen saiatuko dela entzulea. Askotan gertatzen baitzaigu mezu baten esanahia konpartitua denean, hau da, entzuleak igorleak esan nahi duena ezagutzen duenean, ulermena ematen dela, baina mezu bera beste hartzaile bati adierazten zaionean, ez dagoela ulertzerik. Hurrei adierazi horrelako egoerak sarri gertatzen direla eta hitz egin ezazue horretaz, adibideak jarritz.

Haurrak binaka jardun ondoren, gauza bera egin dezakegu talde handian. Orain irakaslea izango da mezua era egokian adieraz dadin arduratuko dena...

### **23. Elkartasun jolasa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.*

Ehunzangoaren (miriapodoa) aitzakiaz, elkartasun jolasari ekingo diogu. Betiko prozedura erabiliko dugu horretarako. Hala ere, talde handiko lana hasi aurretik, eskatu ikasleei banaka jolasaren azalpena irakurtzeko eta ehunzangoak (kasu honetan zati asko dituen osotasuna) suposatzen duen metafora argitzeko.

Gero, ekin iezaiozue elkartasun jolasari. Jolas honen helburua, talde kohesioa eta kooperazioa lantzea da. Mugimenduen koordinazioa gaitasun psikomotriz bezala, norberarena taldearenarekin koordinatuaz. Talde handian elkartasunez jolasteko jarraitu beharreko urratsak jarriko ditugu martxan: gogora ekarri elkartasun jolasa zer den, jolasa azaldu eta jolasteari ekin. Bukatzean, beti bezala, talde elkarrizketa egingo dugu esperientziari buruz hitz egiteko:

- *Zaila izan al da zuentzako zuen gorputzaren mugimendua bestearenarekin koordinatzea?*
- *Dibertigarria izan al da jolasa? Zer da gehien gustatu zaizuen?*
- *Askotan bueltatu behar izan al duzue irteerako marrara? Nola sentitu zarete horrelakoetan?*
- *Zer egin behar izan duzue ehunzangoa osorik heltzeko helmugara? Nola sentitu zarete helburua bete duzuen? Nola adierazi duzue bukaeran sentitutako hori?*

Hainbat dira lehen mailan hasi eta gaur egun arte, animaliekin zerikusia duten eta jolastu dituzten elkartasunezko jolasak. Aukera polita duzue, gogora ekarri eta jolasteko

### **24. Hidrotropismoa eta fototropismoa: esperimenduak**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 19., 20. eta 21. or.*

Bi orrialde hauetan, era esperimentalean, landareak nola elikatzen diren ikusteko aukera emango dizueten hiru esperimentu dituzue, ikasleek talde txikitik egin beharko dituztenak. Lehenengo esperimentuan, landareak sustraietatik xurgatutako ura hostoetaraino doala ikusteko aukera izango duzue. Hurrengo bietan, berriz, landareek ingurumeneko estimulu batzuen aurrean (ura eta argiaren aurrean) ematen dituzten erantzunak zein diren ikusi ahal izango duzue.



Esperimentuak talde txikitan egingo dituzte eta liburuko jarduerak egin ahala osatzen joango dira. Bukatzean talde handian elkarrizketa sortuko dugu esperimentuaren inguruan, eta bukatzeko taldean 20. orrialdeko azalpena irakurri eta jarduera osatuko dugu.

Bada euskal esaera bat fototropismoarekin erlazionatu daitekeena eta tokia egin dakiokena gai honetan: “Eguzkia nora, zapiak hara” hitz egin ezazue esaera horren inguruan eta kartulina batean kopiatuaz, jar ezazue erranak erran sailean.

## **25. Kostaldeko ekosistema**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. eta 23. or.*

Itsasertza ere Euskal Herriko ekosistema ezaguna dugu, batzuentzat beste batzuentzat baino gehiago gertutasunagatik. Gertu ez baduzue ere, interesgarria litzateke egun osoko irteeratxoia egitea ikasleek ekosistema hau bertatik bertara aztertzeko.

Jarduerarekin hasiz, tartetxo bat emango diegu ikasleei, binaka, orrialde horietako ekosistema aztertzeko, bertan agertzen diren bizidunen zerrenda irudiekin erlazionatzeko, bizidun horiei buruz dakitena elkarri kontatzeko, eta baita elika-kate bat osatzeko ere, hor agertzen diren bizidunekin. Gero, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu aipatutakoak elkar jarriaz. Hor behean dituzue elkarrizketa bideratzeko aukerako galdera batzuk:

- Zergatik uste duzu lapak eta muskuiluak marea behean indarrez lotzen zaizkiela arrokei?
- Zer gertatzen zaiie algei urak hondarretara ateratzen dituenean?
- Aipa itzazu irudiko bizidun bakoitzaren ezaugarriak:
  - \*Bizilekua, uretan bakarrik bizi dira, arroketan, hondarrean, uretan eta lehorrean...
  - \*Mota: Landareak edo animaliak diren
  - \*Deskribapena: Gorputzaren forma, ezaugarriak eta hauen zergatia edo funtzioa

## **26. Ekosistemak konparatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: 6. lan-koadernoa, 40. or.*

Hurrengo jardueran, talde handian basoko eta itsasertzeko ekosistemak konparatu beharko dituzte ikasleek, antzekotasunak eta desberdintasunak nabarmenduz. Jarduera hau talde handian eta irakaslearen laguntzaz egingo duzue. Horretarako lehenengo eta behin, lan-koadernoko 40. orrialdea aztertuko duzue jakiteko konparatzea zer den eta nola egiten den. Taldean irakurriko duzue orrialde hori, bertan agertzen den informazioa aztertuz eta argituz.

## **27. DVDa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Talde handian*  
*Materiala: DVDa/6. lan-koaderno, 41. or.*

Basoko eta itsasertzeko ekosistemen irudiak eta ahozko hainbat azalpen izango dituzue ikusgai DVD honetan. Gogoratu, ikasleek argi izan behar dutela DVDa ikusi ondoren zein den eskatuko zaien lana, hau da, bi ekosistemen arteko konparazioa burutzea, beraz, adieraz iezaiezue arreta berezia jarri beharko dietela bakoitzaren ezaugarriei. DVDa ikusten ari zareten bitartean, behar beste geldiune egin ditzakezue bertako azalpenak argitzeko edota zerbaiti arreta berezia jartzeko. Ekosistema bakoitzari buruzko DVDeko atala ikusi ondoren, ikasleek, talde txikitan, ikusi eta entzundakoaren inguruko notak edo apunteak har ditzakete. Bukatzean, gelan eta talde handian, bi ekosistemen konparazio egiten hasiko gara, horretarako arbelean bi koadro handi eginaz eta bertan bi hauen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak apuntatuz. Behin koadroak beterik ditugunean, eta euren artean garrantzitsuenen aukeraketa egina dugunean, konparazio-testua ahoz egingo dugu, lotura hitz eta antolatzaileen erabilpenari garrantzia berezia emanaz. Bukatzean ikasleek bakarka, 41. orrialdeko jarduera osatuko dute, hau da, ahoz eta talde handian egindako konparazio-testua osatzeko prozesu guztia, bakarka eta idatziz egingo dute.

## **28. Irakurzaletasuna: “Hiru lagun”**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.*

Itsasertzeko ekosisteman agertzen diren hiru animalia dira Txilikuren “Hiru lagun” ipuineko protagonistak. Ipuin honen istorioak bete-betean du lotura ekosistema hau lantzeko proposatzen zaizkizuen hainbat gairekin: hegaztien ezaugarriak, lekualdaketa, gizakiekin duten harremana, etab. Horrez gain, bestelako kondairatxoak ere kontatuko dizkigute hiru lagun hauek. Beraz, esan bezala, oso lagungarria gertatuko zaizue ipuin hau irakurtzea ekosistema honi buruz esaten diren hainbat kontzeptu, era ludiko batean azalduz, hobeto ulertzeko. Ipuin honek bost kapitulu ditu. Banan-banan irakurri ditzakezue (ikasleek bakarka, nahiz talde handian) eta hauei buruz hitz egiteko elkarrizketa sortu. Baina ipuina irakurri aurretik, taldean orrialde horretan dagoen aipamena irakurriko duzue eta elkarrizketa sortu aurrikuspen-estrategiak martxan jartzeko eta ikasleen motibazioa pizteko. Kapitulu bakoitza irakurri ahala, ahozko ekoizpena lantzeko ikasleren bati irakurritakoa bere hitzekin kontatzeko eska diezaiokezue.

## **29. Animalien ezaugarriak eta lekualdaketa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 25. eta 26. or.*

Bizidunak ingurumenak eskaintzen dizkien baldintzetara moldatzen direla ikusteko eta nolabait, euren gorputzaren ezaugarriak horretarako egokituak daudela ikusteko, orrialde horretan agertzen zaizkizuen hiru hegaztiren behaketa egitea proposatzen dizuegu. Behaketa lan hau banaka nahiz binaka egin dezakezue. Unitateko irudietan hiru animalia hauei mokoia ondo ikusten bazaie ere, oinak ez, beraz, beha itzazue animalia hauen oinak itsasertzeko ekosistema horretan edo bestela, aukera izanez

gero, bila itzazue hauei buruzko argazkiak (entziklopedietan, interneten...) behaketa zuzenagoa egiteko. Bukatzean talde handian elkarrizketa sor dezakezue ateratako ondorioei buruz hitz egiteko.

Jarduera honekin zuzenean lotuta dagoen hurrengo jarduerari ekingo diozue orain, unitateko 26. orrialdeko klipetan lekualdaketei buruz agertzen diren testuak irakurriko dituzue talde handian, eta gero, elkarrizketa sortuko duzue lekualdaketa eta migrazioei buruz hitz egiteko. Gogoratu, modu ezberdinean izan bada ere, gai honen berri izan dutela beste maila eta gai batzuetan (2.3 eta 3.4 unitateetan, balearen lekualdaketa, eta txinatarren gaian migrazioaren inguruan), ekar itzazue bada gogora, eta hitz egin ezazue horien inguruan lantzen ari gai honekin erlazionatuz.

### **30. Esperientzia: landareak eta ingurumena**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or.*

Ingurumenak landareen bizitzan duen garrantziaz jabetzeko esperimendu bat egitea proposatzen dizuegu, unitate honetako esperimendu guztiak bezala, talde txikitan. Bukatzean, esperimendu horretatik ateratako ondorioak taldean aipatuko ditugu eta baita taldean irakurri ere, esperimendu bidez frogatutakoaren azalpentxoak, iragazkortasunari buruzko testutxoak, alegia. Testua irakurri ondoren, taldean, iragazkor eta iragazkaitz hitzen esanahia argitzen saiatuko gara, ondoren datorren jarduerari bide eginaz.

### **31. Atzizkiak: -kor eta -gaitz**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 6. lan-koadernoa, 39. or.*

Ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduerak osatuko dituzte. Gero talde handian berrikusi eta zuzenduko ditugu.

### **32. Abakandoa: fitxa eta azalpen testua**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 89. or./6. lan-koadernoa, 42. or.*

Hasteko tartetxo bat emango diegu ikasleei abakandoari buruzko bi testuak irakurtzeko. Gero, elkarrizketa sortuko dugu. Hor behean dituzue elkarrizketa horretarako aukerako galdera batzuk.

- Zeri buruz hitz egiten du lehenengo testuak? Eta bigarrenak?
- Biak hitz egiten badute Abakandoari buruz, berdina direla esan genezake? Zertan dira berdina? Zertan dira ezberdina?
- Zein testu mota da lehenengoa? Fitxa. Eta bigarrena? Azalpen-testua.
- Zertarako erabiltzen dira fitxak? Eta azalpen-testuak?
- Zein testuak ematen du informazioa zehatzago? Eta argiago?
- ...?

Bukatzean taldean lan-koadernoko 42. orrialdea irakurri eta jarduerak osatzeari ekingo diogu. Gero, ikasleek bakarka, 43. orrialdean duten hartzaren fitxako datuak erabiliaz, azalpen-testua idatzi beharko dute.

### 33. Ingelesa: Baserria

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. eta 29. or.*

Jarduera bukatu ostean, ikasleek euren tutoreei euskaraz adieraziko diote, ingelesez landutako edukia.

### 34. Elkartasun jolasa: Katuak eta txakurrak gara!

*Lan egiteko era: Talde handian*

Jolas honen helburua komunikazioa, talde kohesioa eta adierazpen emozionala lantzea da.

Talde handian elkartasunez jolasteko jarraitu beharreko urratsak jarriko ditugu martxan: gogora ekarri elkartasun jolasa zer den, jolasa azaldu eta jolasteari ekin.

Jolaskideak bi taldetan banatuko ditugu, talde bateko kideak txakurrak izango dira eta besteak berriz, katuak. Jolaskideak gelan zehar mugituko dira katuka eta bakoitzak errepresentatzen duen animaliaren soinua egingo du. Jolas honen helburua, txakurrak katuak harrapatzea da. Txakur batek katu bat ukitzen duenean bere buruarekin, katu txakur bihurtuko da. Jolasa jolaskide guztiak txakur direnean bukatuko da. Jolas hau arina denez, rolak aldatuaz, bi aldiz jarraian jokatzeko gomendatzen dizuegu.

Ondoren, esperientziari buruzko elkarrizketari emango diogu bidea.

- *Nola sentitu zarete jolas honetan? Zein rol izan duzue gustukoaren, txakurrarena edo katuarena? Zergatik? Dibertigarria izan al da jolasa?*
- *Zein antzekotasun eta ezberdintasun dago txakur eta katu baten jokabidean? ...?*

### 35. DVDA: Baserria

*Lan egiteko era:*

*Materiala: DVDA*

### 36. Kanta-kantari: “Eskerrak behiari!”

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or./CDa, 30. pista*

Hasteko ikasleei abestia irakurtzeko tarte bat emango diegu. Gero hurrengo galderak diktatuko dizkiegu euren koadernoan kopia eta erantzun ditzaten. Galdera hauen erantzunak, irakurritakoaren ulermena bermatu den edo ez adieraziko digute.

- *Zeri buruzkoa da abestia?*
- *Lehenengo paragrafoa irakurrita, zertan esango zenuke ari dela behia?*
- *Zer dira errapeak?*
- *Abestian, zein elikagai aipatzen da behiarengandik lortzen duguna?*
- *Nola esaten zaio behiak egiten duen soinuari?*
- *Zergatik esaten du abestiak kaka janari ona dela baratzaientzat? Azal ezazu zure hitzekin.*

- Abestiaren izenburua “Eskerrak behiari!” da. Zergatik uste duzu eman beharko genizkiokeela eskerrak behiari? Azal ezazu zure hitzekin.

Gero talde handian elkarrizketa sortuko dugu galderen inguruan eta bukatzean musikarekin batera abesteari ekingo diogu.

Gogoratu musikako lan-koadernoan lengoaia musikala lantzeko hainbat eta hainbat jarduera dituzuela.

### **37. Baserriari buruzko informazio bilaketa**

*Lan egiteko era: Binaka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 31. or.*

DVD bidez jasotako informazioaz gain, gure ikasleak baserri mundura hurbildu nahian, informazio bilaketa egitera bultzatuko ditugu; etxean galdetuz, aiton-amonei galdetuz, auzoko baten bati... Interesgarria litzateke baserrian bizi den edo bizi izan den batekin edo batzuekin zuzeneko elkarrizketa izatea, aukera izanez gero. Adostu ezazue baserriar batekin hitzordua eta hurbildu zaitezte baserrira hango bizimodua bertatik bertara ezagutzeko. Informazioa bildu ondoren, gelan, elkarrizketa sortuko dugu gaur egungo baserriko bizimoduari buruz hitz egiteko.

### **38. Abestia: “Baserriko ate zabalak”**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: CDa, 31. pista.*

Abestiaren letra diktatuko diegu ikasleei euren koadernoan kopia dezaten. Gero, binaka, letra irakurri eta ulertzen saiatuko dira, beharrezkoa badute hiztegiara joaz bertako hitzen argibide bila. Jarraian, abestiaren letrak adierazten duenaren marrazkia egingo dute, biak elkarrekin eta elkartasunez, hau da, binaka adostu eta negoziatuz zer margotuko duten, zein koloreekin, nola, nork marraztuko duen zer etab. Marrazkia kartoi mehe batean egin dezakete. Marrazki guztiak gelako pareta batean jarriko ditugu eta elkarrizketa sortuko dugu esperientziaren inguruan, elkartasunez lana egitearen inguruan alegia.

Bukatzeko, taldean, musikarekin batera abestia abesteari ekingo diogu.

### **39. Erleak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 32. eta 33. or.*

Ikasleek, bakarka, euren unitatean duten erleei buruzko azalpentxoak irakurri eta erlearen krokisa aztertuko dute. Gero, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu erleei buruz ditugun aurre-ezagutzak martxan jartzeko. Ondoren, DVDa ikusi ostean burutu beharreko jarduera zein den irakurri eta argituko dugu.

#### **40. DVDa: Erlauntza**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: DVDa.*

Bideoan ikus dezakegu erleak euren artean komunikatu egiten direla, gorputz mugimenduen bidez. Janaria zein norabidetan eta distantzian dagoen, eta baita asko ala gutxi dagoen adieraziz. Dantza baten antzeko mugimenduak egiten dituzte, zortzi zenbakiaren forma markatuz.

#### **41. Erleek sortutako produktuak**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.*

Ikasleek bakarka DVDan entzundako informazioarekin jarduera osatu beharko dute.

#### **42. Erranak erran**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.*

Taldean, unitatean agertzen zaizkizuen erranen inguruan hausnartu eta hitz egin ondoren, binaka nahiz talde txikian, esaerak adierazten duen egoera antzetzeari ekingo diogu.

Hiru esaera eta esamolde bat daude erranak erran honetan, esamoldea ahuntzaren gauerdiko eztularena da. Esaerak, nortasun propioa izaten dute, esangura osoa eta zehatza nolabait esateko, eta hauen baitan, irakaspén bat dago. Esamoldeak berriz, beti esaldi baten barruan kokatuak adierazten ditugu eta nolabaiteko konparazio bat izaten dira. Adieraz iezaiezue hau ikasleei.

#### **43. Olerkia eta aho-korapiloak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 90. eta 91. or./6. lan-koaderno, 44. eta 45. or.*

Eman iezaiezue ikasleei tartetxo bat irakurgaietako olerkiak bakarka irakurtzeko, talde handian irakurri aurretik. Gero, lan-koadernoko jarduerak osatuko dituzte, bakarka nahiz binaka. Bukatzean, idatziriko olerkiak folioetan kopia ditzakete, irudi batekin apaindu eta gela aurrean errezitatu.

#### **44. Ipuina irakurri aurretik eta irakurri ondoren**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or./Irakurgaiak 3, 92. orrialdetik 95.era/  
Ikaslearen liburua, 35. or./6. lan-koaderno, 46. eta 47. or.*

Talde handian, gai honen ipuina den “Ipuin bat nola idatzi” ipuinaren sarrera irakurri eta elkarrizketa sortuko dugu unitatean bertan proposatzen zaizkigun galderen inguruan.

Ondoren, ikasleei tartetxo bat emango diegu ipuina bakarka irakur dezaten eta unitateko 35. orrialdeko jarduerak osa ditzaten.

Ipuin honen amaierak, ekintza baten eraginez zilegi diren hiru ondorio proposatzen ditu eta hauetariko batean oinarrituz eman dio amaiera idazleak. Horrek aukera polita ematen du, ikasleek beste ondorioetako batean oinarrituz ipuinari beste bukaera bat emateko, eta hori da hain zuzen ere ikasleek bakarka egin beharko dutena euren lan-koadernoan. Lan hau burutzean, berrikusketa eta zuzenketa lana bultzatzen ezazue. Gero, ikasleek euren ipuin bukaerak taldeari irakurtzeari ekin diezaiokete.

Jarduera honen bidez, sormena (garatutako bukaera oinarrituta dagoen ideiarekin originaltasuna), testualizazioa (nola idatzi duen: ortografia, puntuazio markak, kodea bera, esaldien egituraketa, kohesioa eta koherentzia...) eta baita irakurketa ozena ere (baliabide prosodikoen irakurketa, doinua, entonazioa, erritmoa...) behatu ditzakezue.

#### **45. Artelana**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 36. or.*

Paul Gauguin-en pintura behatu eta hari buruz liburuak diona irakurri dugu.

Ondoren hurrei proposatu natura inspirazio iturri erabiliko dutela euren koadroa margotzeko. Har dezatela denbora pixka bat horretaz pentsatzeko. Ondoren kartoi mehe handi bana eman eta tenperak edota argizariak erabiliz margo dezatela beren koadroa.

#### **46. Buelako komikia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.*

Komikia irakurtzen hasi aurretik izenburuari erreparatuko diogu. Ondoren, ikasleek bakarka irakurriko dute komikia. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozein xehetasun, beraz eman iezaiezue behar beste denbora hau sakonki beha dezaten.

Ondoren, elkarrizketa sortuko dugu, baina oraingo honetan galderak guk egin beharrean, libre utziko diegu bakoitzak nahi duenaren inguruko komentarioak egin ditzan. Solasaldiaren ostean, komikiko pertsonaien banaketa adostu eta talde txikitik ozeneko irakurketari ekingo diote ikasleek. Ikasleei gogorarazi, arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...), ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain doinuaren garrantzia azpimarratuz.

#### **47. Bertsoak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 96. eta 97. or./CDa 32. eta 33. pistak/6. lan-koadernoan, 48. eta 49. or.*

Ikasleek bakarka bi bertso hauek irakurriko dituzte eta ondoren elkarrizketa sortuko dugu hurrengo galderen inguruan.

- *Zeri buruzkoa da bertso bakoitza?*
- *Zergatik esaten du lehenengo bertsoak lurra dela gure ama eta gure iturri? Zer esan nahi du horrekin?*
- *Zergatik dio bertsoak bizidunok elkarren osagarri garela?*
- *Imajina ezazu satorra edo txantxangorria zarela, nola sentituko zinateke bertsoan aipatzen den egoera biziko bazenu? Zer iritzi duzu bertsoan aipatzen denari buruz?*

Solasaldiaren ostean, bertsoak kantatuko ditugu. Gero, ikasleek bakarka euren lan-koadernoko jarduera osatuko dute. Bukatzean, taldean, elkarriketa sortuko dugu, koplak eta zortziko txikiaren ezaugarriak aipatu, euren arteko berdintasun eta ezberdintasunak ahoz adieraziz.

Oharra: doinuari dagokionez, zortziko txikian badira bi doinu, tartean estribillo bat eskatzen dutenak: “Minberatu zaizkigu”, rantxera bezala ere ezagutzen dugu doinu mexikar hau (En una jaula de oro pendiente de un balcon...) hemen hirugarren puntuan *ai, ai, ai, ai* sartu behar da.

#### **48. Ekosistemen desoreka**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 38. eta 39. or.*

Bi orrialde hauetan, gizakiak ingurumenean eragindako aldaketak eta horiek sor ditzaketen kalteak adierazten dira. Ikasleei, bakarka, testutxoak irakurri eta hauen inguruan hausnartzeko tarte emango diegu. Gero, hitz-errota antolatuko dugu. Gogora iezaiezue ikasleei zein diren jarraitu beharreko urratsak. Hainbat dira behatu eta modu berezian landu ditzakezuen alderdiak hitz-errotan; parte hartzea, elkarriketaren egituraketa eta antolaketa, arauak, hitz egiteko egokitasuna etab. Taldea ezagututa eta orain arte egindako hitz-errotetan egondako zailtasunak kontuan izanik, alderdi jakin bat azpimarratu eta sakonki landu dezakezue, ikasleekin aldez aurretik adostuz nola egin.

- *Egindako hitz-errotetan ikusi dugun bezala, txandak errespetatzea eta dagokigunean hitz egitea kostatzen zaigula ikusirik, gaur puntu hau azpimarratu nahi nuke eta modu berezian saiatuko gara hau betetzen.*
- *Gaur berriz, denok hitz egiten ahaleginduko gara...*
- *Gaur oso baxu hitz egiteko ohitura duzuenok pixka bat altuago hitz egingo duzue, besteen entzun dezaten...*
- *Gaur orririk ez egitea izango dugu helburu...*
- *Iritzia emateko hitzak eta abarren erabilera behatuko dugu...*

#### **49. Definizioak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 6. lan-koaderno, 50. or.*

Definizioak egiten ikasteko prozedurari jarraituz, ikasleek euren lan-koadernoan dituzten jarduerak bakarka osatuko dituzte. Gero, talde handian elkarriketa sortuko dugu egindakoa zuzentzeko, definizioak egiteko orduan sortzen diren zailtasunak zein diren adierazteko eta hauek lantzeko erabil ditzakegun estrategiak konpartitzeko.



## 50. Konparazioak egiten

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 6. lan-koadernoan, 51. or.*

Unitate honen proiektuan egitea proposatzen den txostenean, bi animalia edo bi landare konparatu beharko dituztenez ikasleek, lan-koadernoan saiakera txiki bat egiteko aukera izango dute ikasleek. Jarduera hau bakarka egingo dute.

## 51. Proiektua gauzatzeko

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 40. eta 41. or.*

Dagoeneko ondo aztertuta izango duzue proiekturako zein lan mota egin behar dituzuen eta hauetako hainbat lan eginak ere izango dituzue. Beraz, falta direnak osatzen eta prestatzen has zaitezke zuen proiektua burutzeko.

## 52. Sintesia

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 42., 43. eta 44. or.*

Sintesi-orriek ikasitakoaren errepaso egiteaz gain hainbat alderdi ebaluatzeko tresna bezala erabiltzeko aukera eskaintzen dute. Horregatik, ikasleak orri hauek bete aurretik unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren errepaso egitea aholkatzen dizuegu.

Sintesi-orrialdeetan unitateko alderdi jakin batzuk ebaluatuko ditugu baina horrez gain badira unitatean zehar behagarriak diren beste hainbat alderdi unitatearen bukaeran eta idatziz behatzerik ez daudenak. Batzuk, prozesua ematen ari den bitartean behatu beharrekoak direlako; beste batzuk burutzeko denbora luzeak behar dituztelako; beste batzuk idatzizko formaturik onartzen ez dutelako eta beste asko dagoeneko egin dituztelako eta berriz egiteak inolako zentzurik ez duelako.

Sintesian proposatutakoaz gain horako edukiak berrikusi eta behatu ditzakezue:

Ingurumeneko kontzeptuak: Bizidunen ezaugarriak, elika-katea, landareen elikadura-prozesua, erleen ziztadei buruzko aholkuak, naturaren jakinduria eta bertako bizidun eta bizigabeen arteko harremanez jabetzea.

Ingurumeneko prozedurak: egindako lanaren prozeduraren balorazioa, ikerketak eta proiektua (talde-lana, materialen zainketa eta erabilera zuzena...), ikerketen bidez ondorioak ateratzea eta bizitzako egoerataraz aplikatzea, behaketa, azterketa...

Jarrerak: parte hartzea, egiten ari diren ekintzarekiko interesa, ardura...

\* Hizkuntza: definizioak, atzizkiak, bi animalien ahozko konparazioa (antolatzaileen erabilpena).

- Txostenaren balorazioa, txukuntasuna, argitasuna, zuzentasuna...

- Ipuinaren planifikazioa eta ekoizpena eta honen barruan, puntuazio marken eta denbora antolatzaileen erabilpena.

\* Irakurmena ere behar-beharrezko dute sintesi jarduerok ongi burutu nahi badituzte. Eta noski, idatzizko ekoizpena ere egin beharko dute galderak erantzuteko eta azalpenak emateko.

\* Arte hezkuntzari dagokionez, dramatizazio, plastika eta musikako jarduerak burutu ahala edukiak prozesuan bertan behatzekoak dira.

### **53. Gurutzegrama**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: 6. lan-koaderno, 52. or.*

Ikasleek bakarka, lan-koadernoko definizioak irakurriz unitate honetan landutako hainbat hitz erabiliz gurutzegrama osatu beharko dute.

### **54. Ba al zenekien?**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 3, 98. or.*

Landutako gaiaren inguruko hainbat bitxikeri irakurtzeko aukera izango dute ikasleek orrialde horretan. Bakarka irakurri ondoren, taldean irakurriko dugu hor agertzen den esaldietako bakoitza, horri buruz dakiguna kontatzeko, horrekin zerikusia duen beste informazio batekin erlazionatzeko etab.

## Musikako lan-koadernoak

### 6.1 SOINUEN GORABEHERAK

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 6.1. fitxa/CDa, jarduerak, 34. pista*

Aurreko batean ere aipatu dugu zenbait musika-tresnek hotsekin gora eta behera egiteko aukera eskaintzen digutela. Hauetako bat enbolo-txirula da. Ez da oso ezaguna, ez dugu orkestra handietan eta musika-taldeetan ikusiko. Txirula bat dirudi baina ez du zulorik eta baradun tronboiaren mekanika bera erabiltzen du hotsen altuera moldatu ahal izateko.

Guk, enbolo-txirula horietako bat eskuratu eta aurrez pentsatutako sei grafiko horiek grabatu ditugu. Zuek, CDa martxan ipini, aukeraketa egin eta zenbakiak ipintzea besterik ez duzue egin behar.

Dena den, gelan eta denok batera, grafiko bakoitza begiratu, komentatu eta interpretatzen saia gintezke. Ikasle denentzat enbolo-txirularik ez badugu ahotsa erabiliko dugu, izan ere, ahotsak ere aukera paregabea eskaintzen digu horretarako. Arbelean irudikatuz gero marrazkiak, denok irakur ditzakegu ahotsa erabiliz.

### 6.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "AI, AMA"

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 6.2. fitxa/CDa, jarduerak, 35. pista*

Abesti honetan ere punttua landuko dugu. Bigarren eta seigarren konpasetan agertzen da. Abesti honetako beste berezitasun bat errepikapenena da. Bi pentagramak, lehenengo bat eta gero bestea, errepikatu egin beharko baitira.

Ariketa hau lantzeko prozedura, lan-koadernoan aipatzen dena izango da. Gogoratu "entrenamenduaren" garrantzia, izan ere abesti hau oso arin jotzea lortu behar dugu.

### 6.3 HIRUKO NEURRIA

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 6.3. fitxa*

Biko neurria landu dugu orain artean: bat, bi, bat, bi... Ibileraren sentipera barru-barruan dugu eta erritmoa sentitzeko, markatzeko, kantatzeko eta musika egiteko oso baliagarria zaigu.

Baina aurrerapauso berri bat emateko unea iritsi zaigu; hiruko neurria lantzen hasi beharra daukagu. Lehenik, neurketak egiten eta mugak ipintzen hasiko gara. Biko neurrian bi taupadek osatzen zuten konpasa. Hiruko neurrian aldiz, hiru taupada izango dira konpasaren muga ipiniko dutenak.

Konpas bakoitzean denbora fuertea lehenengoa da. Bigarrena eta hirugarrena aldiz, denbora ahulak dira.

## 6.4 NEURRI BERRIAREKIN

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.4. fitxa*

Aipatu berria dugu hiruko neurrian, konpas bakoitzean hiru taupada biltzen direla. Jakina da taupada bat beltza bezala kontatzen dugula. Honela hainbat konbinazio egin daitezke konpasa osatzerakoan, zuri, beltzen eta kortxeen balioak kontuan harturik.

Orrialde honetako lehenengo ariketan, marra zatitzaileak ipiniz, hiru taupadez osaturiko multzotan bilduko ditugu notak.

Bigarren ariketan, ikasleek, irakaslearen azalean ipini eta konpas horiek guztiak zuzendu beharko dituzte. Izan ere, nahastu egin gara eta, auskalo zertan ari ginen pentsatzen, ez ditugu ongi osatu konpasak. Batzuetan nota gehiegi eta beste batzuetan gutxiegi jarri ditugu. Halere, tartean bakarren bat ongi jarri dugu.

Eta hirugarrenean, konpasak aztertu eta beharrezkoa baldin bada osatu egin beharko dituzte. Ez ahaztu hiruko neurrian ari garela.

## 6.5 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "NIK ZU ZAITUT"

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.4. fitxa/CDa, jarduerak, 37. pista*

Nota berri bat jotzen ikasiko dugu oraingoan. Aurtengoz azkena izango da, beheko Re da nota. Zazpi zulo ongi itxi, haizea goxo-goxo bota eta kito.

"Nik zu zaitut" abestiarekin hasi aurretik zenbait froga egingo ditugu. Oraingoan ere errepika ariketak oso baliagarriak egingo zaizkigu nota berri honetaz aparte hiruko neurria praktikatzen jarraitzeko. Re eta bere ondoan kokaturik dagoen Mi notekin hasiko gara.

<b>IRAKASLEAK</b>	<b>IKASLEEK TXIRULAZ</b>
θ θ θ / η. / θ θ θ / η. RE RE RE MI / RE RE RE MI	θ θ θ / η. / θ θ θ / η. RE RE RE MI / RE RE RE MI
θ θ θ / θ θ θ / θ θ θ / η RE RE RE MI MI MI RE RE RE MI	θ θ θ / θ θ θ / θ θ θ / η. RE RE RE MI MI MI RE RE RE MI
θ θ θ / θ θ θ / η θ / η RE RE RE MI MI MI RE RE MI	θ θ θ / θ θ θ / η θ / η RE RE RE MI MI MI RE RE MI
η θ / η. / η θ / η. RE RE MI RE RE MI	η θ / η. / η θ / η. RE RE MI RE RE MI

Eskema berdina erabiliz Re eta Fa landuko ditugu. Ondoren Re eta Sol, Re eta La, Re eta Si. Posible bada Re eta goiko Do ere lantzea komeni da. Azken urratsa, beheko eta goiko Re notekin frogatzea izango da.

Kanta hau hartu eta CDan dugula aprobeztatuz, erritmo ariketa bat egingo dugu. Konpaseko lehen denbora landuko dugu, taupada fuertea hain zuzen ere. Horretarako, kanta entzunaz, bi eskuz, belaun gainak kolpatuko ditugu konpasaren hasiera markatuz.

## **6.6 SOINUAK MARRAZTEN**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.6. fitxa/CDa, jarduerak, 38. pista*

Aurreko batean, enbolo-txirularekin eginiko zenbait soinu entzun eta haietako bakoitzari zegokion grafikoa aukeratu genuen. Gaurkoan, soinuak entzun eta grafikoak egin beharko ditugu.

Grafiko denen abiapuntua erdiko marratxo izango da. Adi belarriak eta ea grafiko politak ateratzen zaizkizuen. Bakoitzak berea egin ondoren, besteenarekin alderatuko dute ikasleek eta desberdinak atera bazaizkigu, arbelean egin eta CDa entzunaz, denon artean aukeratuko dugu egokia dena.

## **6.7 ZUZENDARIAREN BATUTA**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.7. fitxa/CDa, jarduerak, 39. pista*

Zuzendarien gisara batuta eskuetan hartu, gure kasuan arkatza edo antzeko zerbait, eta CDan dauden musikariei neurria markatuko diegu. Batzuk biko neurrian ari dira, eta beste batzuk hirukoan. Konpasa nola markatu behar den azaltzeko marrazkitxoak lan-koadernoan dituzue. Hiruko neurriko musika zatiak honoko hauek dira: 1, 3, 5 eta 6.

## **6.8 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: "DIN DAN DIN DON"**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 6.8. fitxa/CDa, jarduerak, 40. pista*

Hiruko neurrian idatzia dagoen kanta da hau ere. Beheko Re eta Si, eta La eta Sol agertzen zaizkigu elizetako kanpaiek berea agin duten melodia honetan.

Ohiko prozedura jarrai ezazue eta ez ahaztu "entrenamendua". Ez notengatik bakarrik, erritmoagatik ere bai. Hiruko neurria ez baita biko bezain erraza.

## LAN-KOADERNOTIK APARTEKO ABESTIAK

### OLARAI

*Lan egiteko era: Talde handian/Bi taldetan banatuta*

*Materiala: CDa, jarduerak, 36. pista*

#### A

*Mendiz mendi ibiliz*

*herritik ihesi,*

*gailurreko elurrak*

*nahi ditut ikusi.*

#### B

*Olarai, lairia,*

*olarai, olarai,*

*olarai, lairia,*

*olarai, lai, lai*

Hiruko erritmoaz baliatuz egindako abestia dugu hau. Baina, horretaz aparte, melodiak duen estrukturagatik, kanon modura kantatzeko aukera ere ematen digu. Gogoan izango duzue zer den kanona: melodia bakar bat baina hainbat denboratan kantatua.

Kantuaren lehen helburua kantatuz gozatzea da. Baina kanona egiteak beste poz bat emango digu. Horretarako oso garrantzitsua da prozedura. Hona hemen guk erabiltzen duguna:

1. Egin bi talde.
2. Bi taldeek batera ikasi kantua eta melodia ongi memorizatu.
3. Talde bakoitzarekin frogatu ea melodia ikasi duten. Aurrena talde batek bakarrik kanta dezala, eta gero besteak.
4. Has dadila talde bat kantuan. Hasi eta jarraitu, bukatu arte eta berriz hasi...
5. Talde bat B zatira iristean, bigarren taldea hasiko da kantuan, baina hasieratik.
6. Irakasleak nahi duenean *tutti* esan eta denak, bi taldeak hasieratik hasiko dira. Horrela buka dezakegu.
7. Beste era batera bukatzeko aukera ere badugu: hiru edo lau aldiz kantatu dutenean, eta talde bat bukaerara iritsi denean, hau isilarazi eta bigarren taldeak amaitzean, denak batera buelta bat kantatu.

Gehienen joera, kanon bat egiterakoan, belarriak tapatzea izaten da. Saia zaitezte hori ez egin ez dezaten. Geurea kantatuz besteena ere entzun egin behar baitugu. Horrela, eta ez bestela, izango dugu polifoniaren sentsazioa. Denon artean ari gara kanta eder bat egiten.